izatea. Era berean, esportazioak inportazioak baino gehiago jaitsi ziren (% 33,5 eta % 28,8 hiruhilekoen artean, hurrenez hurren); beraz, kanpoko eskariak hazkundeari egindako ekarpenak 2,9 pp-ko saldo negatiboa izan zuen. Esportazioen atzerakada handiaren arrazoi nagusia izan zen zerbitzuen sektorea hiruhilekoen arteko % 55,4 jaistea, neurri handi batean turismoaren sektorea jasaten ari den krisi larriaren ondorioz.

Hirugarren hiru hilabeteko jardueraren bilakaera pandemiaren bilakaeraren araberakoa izango da. Azken asteetan, Espainian baieztatutako COVID-19ko kasuen kopuruak gora egin du (10.000 inguru ziren abuztuaren amaieran). Igoera hori gorabehera, kasu gehienak sintomarik gabekoak dira eta larritasun txikiagokoak; beraz, ospitaleen ahalmena oso urrun dago udaberriko estresa jasatek, eta heriotza kopurua txikia da oraindik, martxokoa eta apirilekoa baino askoz ere baxuagoa. Birusaren birsortzeek lokalizatuta jarraitzen duten heinean eta neurri mugatuekin eteten diren heinean, ekonomiak hazkunde nabarmena izan beharko luke 2020ko hirugarren hiruhilekoan, jardueraren murrizketak altxatzeari esker, nahiz eta susperraldia osatugabea izango den txertorik ez dagoen bitartean, eta ekonomian izandako erorikoen gogortasunak krisiaren aurreko jardura mailak berreskuratzeko urteak beharko direla aurreikustera garamatza.

Jardura adierazleek erakusten dute arian-arian suspertzen ari dela jardura, baina ez erabat. Uztailean, manufaktura sektoreko PMI indizea 53,5 puntura igo zen (49,0 ekainean) eta hedapen eremuan kokatu zen (50 puntuko mugaren gainetik). Era berean, zerbitzuen sektorerako adierazle homologoa hedapen eremuan egon zen (51,9 puntu), aurreko hileko erregistroa baino zertxobait gorago (50,2 puntu). Bestalde, txikizkako merkataritzaren indizea % 1,1 igo zen uztailean ekainaren aldean. Urtetik urterako datuen arabera, txikizkako merkataritzaren indizea oraindik ere negatiboa zen (-% 9,9 2019ko uztailaren aldean), baina atzean utzi ditu azken hilabeteetako bi digituko jaitsierak. Abuztuko datuekin, CaixaBankeko TPVko txartelak erabiliz eta eskudirua ateraz egindako gastu osoak urte arteko % 6,8ko beherakada izan du hileko lehen hiru asteetan, hau da, 5,3 p.p. hobetu da uztaileko erregistroarekin alderatuta. Hobekuntza horrek etxeko gastuaren susperraldia islatzen du ia osorik, urte arteko %

respectivamente) por lo que la contribución de la demanda externa al crecimiento arrojó un saldo negativo de 2,9 p. p. El fuerte retroceso de las exportaciones estuvo liderado por la caída de las exportaciones de servicios, del 55,4% inter-trimestral, en gran parte fruto de la grave crisis que está afrontando el sector turístico.

La evolución de la actividad en el tercer trimestre dependerá de manera crucial de la evolución de la pandemia. En las últimas semanas se ha registrado un aumento en el número de casos de COVID-19 confirmados en España (se situaban cerca de los 10.000 a finales de agosto). A pesar de este aumento, la mayoría de los casos son asintomáticos y de menor gravedad, por lo que la capacidad hospitalaria está lejos de sufrir el estrés de la primavera y el número de muertes se mantiene bajo y en niveles muy inferiores a los de marzo y abril. En la medida en que los rebrotes del virus continúen localizados y se atajan con medidas acotadas, la economía debería experimentar un rebote de crecimiento notable en el 3T 2020, gracias al levantamiento de las restricciones a la actividad, aunque la recuperación será incompleta mientras no exista una vacuna, y la dureza de las caídas vividas hace prever que se tarde años en recuperar los niveles de actividad previos a la crisis.

Los indicadores de actividad muestran una recuperación paulatina pero incompleta de la actividad. En julio, el índice PMI del sector manufacturero aumentó hasta los 53,5 puntos (49,0 en junio) y se situó ya en zona expansiva (por encima del límite de los 50 puntos). Asimismo, el indicador homólogo para el sector servicios permaneció en zona expansiva (51,9 puntos) en un registro algo por encima al del mes anterior (50,2 puntos). Por su parte, el índice del comercio al por menor aumentó en julio un moderado 1,1% con respecto a junio. En términos interanuales el índice del comercio al por menor todavía se emplazó en territorio negativo (-9,9% respecto a julio de 2019), aunque deja atrás las caídas de dos dígitos de los últimos meses. Ya con datos de agosto, el gasto total realizado con tarjetas en TPV de CaixaBank y retiradas de efectivo muestra un descenso del 6,8% interanual durante las tres primeras semanas del mes, una mejora de 5,3 p. p. con respecto al registro de julio. Esta mejora refleja en casi su totalidad la



3,9ko igoera izan baitzuen (+8,2 p.). Atzerritarren gastuak, aldiz, urte arteko % 58,8ko beherakadak izan zituen abuztuko lehen hiru asteetan, uztailakoaren oso antzekoa.

Lan merkatuak aurrera egiten du oraindik osorik ez dagoen susperraldiaren bidean. Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuen arabera, okupazioa 1,07 milioi pertsona murriztu zen 2020an, eta benetako lanorduen kopurua % 22,6 murriztu zen hiruhilekoen artean, okupazioaren murrizketaren oso gaintetik eta BPGaren beherakadarekin bat. Era berean, konfinamendu neurrien ondorioz, landunen % 16,3k beren etxetik lan egin zuten 2020ko bigarren hiruhilekoan, 2019an baino askoz gehiago (% 4,8). Langabeen kopuruaren igoera askoz ere mugatuagoa izan zen (+55.000 pertsona 2020ko bigarren hiruhilekoan); izan ere, lanik gabe lan egiteko prest zeuden pertsona gehienak ez-aktibotzat hartu ziren, enplegua aktiboki bilatu ezin zutelako. Horrela, langabezia tasa % 15,3 izan zen 2020ko bigarren hiruhilekoan (+0,9 puntu 2020ko lehen hiruhilekoaren aldean). Hirugarren hiruhilekoan lan merkatuak izan duen bilakaerak irudi apur bat positiboagoa utzi digu, eta susperraldi partziala gertatu dela dirudi, batez ere merkataritzan, jatetxeetan edo ostalaritzan. Gizarte Segurantzaren (GS) datuen arabera, uztaillean batez besteko afiliatuen kopurua 161.000 pertsona igo zen, 18,8 milioiraino, eta erregistratutako langabezia 90.000 pertsona jaitsi zen, 3,8 milioiraino. Hobekuntza hori gorabehera, bi mailak 2019ko uztaillean erregistratutakoak baino okerragoak dira (-% 3,8 eta + % 25, hurrenez hurren). Era berean, ABEE espediente baten barruan dauden kopurua nabarmen murriztu zen uztaillean eta abuztuan. Abuztuaren erdialdean 850.000 onuradun gelditzen ziren, hau da, ia milioi bat gutxiago ekainaren amaieran baino eta apirilean izandako maximoaren oso azpitik (3,4 milioi).

Kanpoko sektorea gelditu egin da turismoaren sektorearen egoeraren ondorioz. Kontu korrante bidezko balantza 18.000 milioikoa izan zen 2020ko maiatzean, eta nabarmen egin du okerrera 2019ko maiatzeko mailarekin alderatuta. Osagaien arabera, energia prezioen jaitsierak 6.100 milioi euro gehiagoko energia saldoa ekarri zuen 2019ko maiatzean baino. Gainerako azpibalantzek aurrerapen txikiak erregistratu zituzten, baina horiek eta balantza energetikoaren

recuperación del gasto doméstico, que aumentó un 3,9% interanual (+8,2 p. p.). En cambio, el gasto de extranjeros mantuvo unas caídas del 58,8% interanual en las tres primeras semanas de agosto, un registro muy similar al de julio.

El mercado laboral avanza en la senda de una recuperación aún incompleta. Según datos de la EPA, la ocupación se redujo en 1,07 millones de personas en el 2T 2020 y el número de horas efectivas de trabajo disminuyeron en un 22,6% inter-trimestral, muy por encima de la reducción de la ocupación y más en línea con la caída del PIB. Asimismo, debido a las medidas de confinamiento, un 16,3% de los ocupados trabajaron desde su domicilio en el 2T 2020, muy por encima del porcentaje que lo hizo en 2019 (4,8%). El aumento del número de parados fue mucho más limitado (+55.000 personas en el 2T 2020), puesto que la gran mayoría de individuos sin trabajo dispuestos a trabajar pasaron a considerarse inactivos al no poder buscar empleo activamente. Así, la tasa de desempleo se situó en el 15,3% en el 2T 2020 (+0,9 p. p. respecto al 1T 2020). La evolución del mercado laboral en el 3T nos deja una imagen algo más positiva y de recuperación parcial, en particular en sectores como el comercio, la restauración o la hostelería. Los datos de la Seguridad Social (S. S.) muestran que en julio el número de afiliados promedio aumentó en 161.000 personas hasta los 18,8 millones y el paro registrado disminuyó en 90.000 personas hasta los 3,8 millones. A pesar de esta mejora, ambos niveles son peores que los registrados en julio de 2019 (-3,8% y + 25%, respectivamente). Asimismo, el número de beneficiarios en ERTE se redujo significativamente durante julio y agosto. A mediados de agosto quedaban unos 850.000 beneficiarios en ERTE, cerca de un millón menos que a finales de junio y muy por debajo del máximo registrado en abril (3,4 millones).

El sector exterior sufre el parón del sector turístico. La balanza por cuenta corriente se situó en los 18.000 millones en mayo de 2020, un fuerte deterioro con respecto al nivel de mayo de 2019. Por componentes, la bajada de los precios energéticos facilitó un saldo energético 6.100 millones de euros superior al de mayo de 2019. El resto de sub-balanzas registraban ligeros avances, pero ni estos ni la mejora de la balanza energética compensaron el deterioro del turismo. La caída



hobekuntzak ez zuten turismoaren narriadura konpentsatu. Turismoaren jaitsierak zerbitzu turistikoaren superabita 11.900 milioitan murriztu zuen maiatzean, eta udako denboraldia baino lehen kontu korrontearen bidezko balantzaren narriaduraren atzean zegoen faktore nagusia izan zen. Are gehiago, udan atzerriko turismoa izugarri murrizteak balantza turistikoaren narriadura areagotuko du eta kontu korrontearen saldo osoa higatzen jarraituko du.

Finantza publikoak COVID-19aren ondoren Espainiako ekonomiaren beste alde ahul bat dira. Pandemia honetan zehar pertsonen, langileen eta enprekin laguntzeko Estatuaren aurrekaririk gabeko ekintza kontu publikoetan eragina izaten ari da. Estatuaren gastuek urte arteko +% 23,7 egin zuten gora urtariletik ekainera arteko gastu metatuan, eta diru sarrerak, berriz, urte arteko % 14,4 murriztu ziren (ekainera arteko gastu metatuan) jardura ekonomikoaren murrizketaren ondorioz. Ondorioz, Estatuaren defizita BPGaren % 4,4koa izan zen urtaril-ekaina tartean, 2019ko ekaineko erregistroa baino 3,6 p.p. handiagoa. Okertze horrek jarraituko duela aurreikusten da, eta urte osorako defizita BPGaren % 13,5 ingurukoa izango dela. Nolanahi ere, EBko programak (Espainiak aurten SUREren 21.300 milioi jasoko dituela baieztatu da) finantzaketa beharrak betetzen lagunduko dute, eta zorraren kostua maila baxuetan mantentzen da, EBZren moneta politika egokituaren mesedetan.

1.3- EUSKADIKO EKONOMIA

COVID-19aren hedapenak munduko jardura ekonomikoa hankaz gora jarri du. EAEko ekonomiaren kasuan, 2020ko lehen hiruhilekoan BPGaren urte arteko jaitsiera tasa % 3,2 izan da, hiruhileko arteko kalkuluan % 4,7ra iristen delarik. Bat-bateko beherakada hori 2019an lortu zen % 2,2ko erritmo ia konstantearen ondoren gertatu da, eta martxoaren bigarren hamabostaldian ezarri zen alarma egoerari lotuta dago. Osasun alarmak funtsezkoak ez ziren jardura guztiak geldiarazi zituen eta deseskalatze prozesua hasieran aurreikusitakoa baino luzeagoa izan da, ia bigarren hiruhileko osora luzatu baita. Horregatik, bigarren hiruhilekoan BPGaren jaitsiera lehenengoarena baino nabarmen handiagoa izatea espero da. Ekonomiaren bilakaera hori munduko herrialde gehienetan gertatu da, BPGan beherakada nabarmenak izan baitituzte. Hala, euroguneak % 3,1 egin du

del turismo redujo el superávit de los servicios turísticos en 11.900 millones en mayo y fue el principal factor detrás del deterioro de la balanza por cuenta corriente ya antes de la temporada veraniega. Es más, la drástica reducción del turismo extranjero en verano aumentará el deterioro de la balanza turística y seguirá erosionando el saldo total de la cuenta corriente.

Las finanzas públicas, otro flanco débil de la economía española tras la COVID-19. La acción sin precedentes del Estado para ayudar a las personas, a los trabajadores y a las empresas durante esta pandemia está impactando en las cuentas públicas. Los gastos del Estado ya aumentaban un +23,7% interanual en el acumulado de enero a junio, mientras que los ingresos se redujeron en un 14,4% interanual (en el acumulado hasta junio) debido a la reducción de la actividad económica. Como resultado, el déficit del Estado se situó en el 4,4% del PIB en enero-junio, un registro 3,6 p. p. superior al de junio de 2019. Este empeoramiento está previsto que continúe y que, para el conjunto del año, el déficit se sitúe alrededor del 13,5% del PIB. En cualquier caso, los programas de la UE (se ha confirmado que España recibirá 21.300 millones del SURE este año) ayudarán a cubrir las necesidades de financiación y el coste de la deuda se mantiene en niveles bajos, favorecido por la política monetaria acomodaticia del BCE.

1.3- ECONOMÍA DE EUSKADI

La expansión de la Covid-19 ha trastocado la actividad económica mundial. En el caso de la economía vasca, el primer trimestre de 2020 se ha saldado con una caída interanual del PIB del 3,2%, que llega al 4,7% en el cálculo intertrimestral. Este brusco descenso se produce tras un año 2019 en el que se observó un ritmo casi constante del 2,2% y está relacionado con el estado de alarma instaurado en la segunda quincena de marzo. La alerta sanitaria paró toda la actividad no esencial y el proceso de desescalada ha sido más largo de lo inicialmente previsto, prolongándose durante prácticamente todo el segundo trimestre. Por ello, se espera que la caída del PIB en el segundo trimestre sea significativamente mayor que la del primero. Esa evolución de la economía es común a la mayoría de los países del mundo, que han registrado caídas notables en el PIB. Así, la

behera urtetik urtera, eta % 3,6, berriz, hiruhilekotik hiruhilekora.

Europako herrialde askotan konfinamenduko erabakiak hartzeko orduan erabili den sinkroniak kanpo merkataritza geldiarazi du. Martxoaren bigarren hamabostaldian, ia bere osotasunean mugatu ziren norbere lurraldetik kanpo saltzeko eta erosteko aukerak. Hamabostaldi horren eragina oso handia izan zen eta hiruhileko osoko esportazio errealak % 7,5 jaitsi ziren; inportazioak, berriz, % 7,3 gutxitu ziren. Bilakaera horien ondorioz, kanpoko saldoak ez zion inolako ekarpenik egin BPGren hazkundeari.

Martxoaren erdialdera arte kapitalaren eraketa gordinak erakusten zuen dinamismoa bertan behera geratu zen une hartan, zeren eta jarduera denbora jakin batez geldiarazteak hainbat inbertsio proiektu gauzatzea eragotzi baitzuen. Oro har, magnitude hori ez zen berriro ekonomia osoaren batez bestekoa baino gehiago hazi eta % 3,6ko murrizketa izan zuen. Jaitsiera handiagoa izan zen ekipamendurako ondasunen atalean (-% 5,0), baina gainerako inbertsioari ere, eraikuntzako jarduerak barnean hartzen baititu, eragin zion (-% 2,8).

Konfinamenduaren ondorioetako bat merkataritza eta ostalaritza ia erabat ixtea izan zen. Horrek familien gastu aukerak baldintzatu zituen, eta, kontsumo horren zati bat Interneteko plataformetara bideratu bazen ere, kontsumo pribatua % 4,8 murriztu zen lehen hiruhilekoan. Aitzitik, kontsumo publikoak nabarmen egin zuen gora aldi horretan (% 4,1), pandemiak agerian utzi zituen osasun eta gizarte premiengatik.

Sektoreen ikuspegitik, lehen arloak bakarrik handitu zuen bere balio erantsia (% 3,5), elikadura funtsezko jardueratzat jo zelako. Bestalde, eraikuntzak bere jardueraren zati bati eutsi zion, baina ez zen nahikoa izan tasa positiboan jarraitzeko (-% 2,7), eta, aldi berean, industriak bere balioaren zati handi bat galdu zuen (-% 3,6).

Pandemiak zerbitzu pribatuak kaltetzen ari dira bereziki. Sektore osoak % 2,8 murriztu zuen bere balio erantsia, baina administrazio publikoari, hezkuntzari, osasunari eta gizarte-zerbitzuei lotutako jarduerak, horiek guztiak funtsezko jarduerak baitira, % 1,2

zona del euro anotó un descenso interanual del 3,1% e intertrimestral del 3,6%.

La sincronía con la que se han tomado las decisiones de confinamiento en muchos de los países europeos ha traído consigo un freno del comercio exterior. En la segunda quincena de marzo, se restringieron casi en su totalidad las posibilidades de vender y de comprar fuera del propio territorio. La incidencia de esa quincena fue importante y las exportaciones reales de todo el trimestre cayeron un 7,5%, mientras que las importaciones lo hicieron un 7,3%. Como resultado de esas evoluciones, la aportación del saldo exterior al crecimiento del PIB fue nula.

El dinamismo que mostraba la formación bruta de capital hasta mediados de marzo quedó anulado en ese momento, en el que la paralización de las actividades por un tiempo determinado impidió la concreción de diversos proyectos de inversión. En conjunto, esa magnitud dejó de crecer por encima del conjunto de la economía para registrar un recorte del 3,6%. El descenso fue superior en el apartado de bienes de equipo (-5,0%), pero también afectó al resto de la inversión (-2,8%), que incluye a las actividades de construcción.

Una de las consecuencias del confinamiento fue el cierre casi total del comercio y la hostelería. Esto condicionó las posibilidades de gasto de las familias y, aunque parte de ese consumo se trasladó a las plataformas de Internet, el consumo privado se redujo un 4,8% en el primer trimestre. En sentido contrario, el consumo público aumentó de forma muy significativa en el periodo (4,1%), por las necesidades sanitarias y sociales que evidenció la pandemia.

Desde la perspectiva sectorial, tan solo el sector primario aumentó su valor añadido (3,5%), gracias a que la alimentación se consideró una actividad esencial. Por su parte, la construcción mantuvo parte de su actividad, pero no fue suficiente para seguir en positivo (-2,7%), al tiempo que la industria perdió una parte significativa de su valor (-3,6%).

Los servicios privados están siendo los más perjudicados por la pandemia. El conjunto del sector redujo su valor añadido un 2,8%, pero las actividades ligadas a la administración pública, la educación, la sanidad y los servicios sociales, todas ellas actividades esenciales,



handitu zuten balio erantsia. Aitzitik, urruntze neurriek eragin handia izan dute merkataritza, ostalaritza eta garraioan eta jarduera horien balio erantsia % 4,2 jaitsi zen lehen hiruhilekoan. Halaber, normaltasunera itzultzeko denbora gehien beharko duten jarduerak dira, eta, beraz, ez da epe laburrean susperraldirik sumatuko. Gainerako zerbitzuek (-% 4,0) merkataritzaren eta ostalaritzaren antzeko portaera erakutsi zuten.

Jardueraren gelditzeak eragina izan zuen enpleguan, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, % 2,8ko beherakada izan baitzuen. Tasa horrek adierazten du 27.700 enplegu galdu direla duela urtebete zeudenekin alderatuta, eta 37.600 lanpostu, berriz, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Beste modu batean esanda, hiruhileko bakar batean galdu da azken bi urtean sortutako enplegu guztia. Balio absolutuan, kalte handiena jasan zuen sektorea zerbitzuena izan zen; hala eta guztiz ere, urte arteko tasak negatiboagoak izan ziren eraikuntzan eta industrian (-% 3,4 bi kasuetan, zerbitzuen -% 2,7ren aldean).

Jarduera gelditzearen ondorioz ager daitezkeen arriskueta bat deflazioa da. Lehen hiruhilekoan, BPGaren deflatoarea % 0,6 baino ez zen igo, baina apirilean, prezioen azterketan erreferentzia nagusietako bi, hots, KPI eta IPRI indizeek, urte arteko tasa negatiboak izan zituzten jada. Lehenengo kasuan, kontsumoko prezioak % 0,5 merkatu ziren urte arteko tasan, eta industriako prezioak, berriz, % 4,6. Petrolioaren prezioaren bilakaera da prezioen indizeen jaitsiera hori azaltzen duten arrazoieta bat, baina, industriaren sektorean bereziki, prezioak ez igotzea merkatu kuotari eusteko estrategia bat da.

Azken hiru hilabeteetan, ekonomia nagusietarako aurreikusi diren eszenategi makroekonomikoak behin eta berriro eguneratu dira. Euskadi ez da salbuespena, eta aurreko buletin ekonomikoan BPGaren % 3,6ko jaitsiera aurreikusten bazen, oraingo egoeran urte arteko tasa -% 8,7koa da. Argitaratu diren EAEko ekonomiarako aurreikuspenen panoramaren barruan, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren koadro makroekonomikoa ezkorrena da. Hala eta guztiz ere, hainbat erakundek Espainiako ekonomiarentzat egin dituzten estimazioen

aumentaron su valor añadido un 1,2%. En sentido contrario, el comercio, la hostelería y el transporte son actividades que han resultado muy afectadas por las medidas de distanciamiento y su valor añadido cayó un 4,2% en el periodo. Además, son las actividades que más tiempo van a necesitar para volver a la normalidad, por lo que no se apreciará una recuperación a corto plazo. El resto de servicios (-4,0%) mostró un comportamiento similar al de comercio y hostelería.

La parálisis de la actividad tuvo su reflejo en el empleo, medido en puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo, que anotó una caída del 2,8%. Esa tasa se traduce en una pérdida de unos 27.700 empleos respecto a los existentes hace un año y de 37.600 empleos en relación al trimestre anterior. Dicho de otro modo, en tan solo un trimestre se ha perdido el empleo generado en los dos últimos años. El sector más perjudicado en valor absoluto fue el de los servicios, sin embargo las tasas interanuales fueron más negativas en la construcción y la industria (-3,4% en ambos casos, frente al -2,7% de los servicios).

Uno de los riesgos que pueden aparecer por la paralización de la actividad es la deflación. En el primer trimestre, el deflactor del PIB aumentó tan solo un 0,6%, pero en abril dos de las referencias principales en el análisis de precios, el IPC y el IPRI, ya registraron tasas interanuales negativas. En el primer caso, los precios de consumo se abarataron un 0,5% interanual, mientras que los precios industriales lo hicieron un 4,6%. La evolución del precio del petróleo es una de las razones que explican esa bajada de los índices de precios, pero, especialmente en el sector industrial, contener los precios es una estrategia para mantener la cuota de mercado.

En los últimos tres meses, se han sucedido las actualizaciones de los escenarios macroeconómicos previstos para las diferentes economías. Euskadi no es una excepción y si en el anterior boletín económico se anticipaba un descenso del PIB del 3,6%, en el escenario actual la tasa interanual se sitúa en el -8,7%. Dentro del panorama de previsiones para la economía vasca publicadas, el cuadro macroeconómico de la Dirección de Economía y Planificación es el más pesimista. Sin embargo, se encuentra en línea con las estimaciones que varias instituciones han



ildotik doa. Oro har, BPGren bat-bateko jaitsiera espero da bigarren hiruhilekoan, eta, aurreikuspen horren arabera, $-\% 13,4$ iritsiko da. Hiruhileko hori krisi honetako punturik baxuena izango da. Hortik aurrera, suspertze fase bat hasiko da, baina aldakuntza tasa positiboak ez dira 2021eko bigarren hiruhilekora arte iritsiko. Urte horretan, BPGa $\% 6,7$ handituko da, aparteko balioa baita, baina ez da nahikoa izango EAEko ekonomiari 2019an izan zuen mailara itzularazteko. Era berean, aurten 68.100 lanpostu galduko direla aurreikusten da, eta datorren urtean 47.900 lanpostu sortuko direla. Egoera horretan, langabezia tasa $\% 13,7$ ra igoko da aurten, eta $\% 12,2$ ra jaitsiko da 2021ean.

realizado para la economía española. A grandes rasgos, se espera un brusco descenso del PIB en el segundo trimestre, que llegará, según esta previsión, al $-13,4\%$. Ese periodo marcará el punto más bajo de la presente crisis. A partir de ahí, se iniciará una fase de recuperación, pero las tasas de variación positivas no llegarán hasta el segundo trimestre de 2021. Ese año, el PIB aumentará un $6,7\%$, un valor extraordinario, pero que no será suficiente para devolver a la economía vasca al nivel que registró en 2019. De igual manera, se anticipa una pérdida de 68.100 puestos de trabajo este año y la creación de 47.900 empleos el próximo. En este escenario, la tasa de paro subirá hasta el $13,7\%$ este año y bajará al $12,2\%$ en 2021.